



2017ko IKASTAROAK  
Urria - Abendua

# APUE

AHALDUNTZE ETA  
PARTAIDETZAKO  
UDAL ESKOLA



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala

**zentro**

Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea

# AURKIBIDEA

<b>1. ZENTRO. Elkarlaneko Gunea</b>	<b>3</b>
<b>2. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA</b>	<b>5</b>
- Ahalduzte pertsonala	7
- Taldeen eta erakundeen ahalduntzea	10
- Gizartearen eta komunitatearen ahalduntzea	16
<b>3. PRESTAKUNTZA ELKARTEEKIN</b>	<b>23</b>
<b>4. PRESTAKUNTZA NAHIERAN, GIZARTE ENTITATEENDAKO</b>	<b>23</b>
<b>5. 2017ko PARTAIDETZA JARDUNALDIAK</b>	<b>24</b>
<b>6. IKASTARO GUZTIEN EGUTEGIA</b>	<b>25</b>

Zentro Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduzko Alorraren barruan dago.

Guneak xede du udalerriko kolektiboetara eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako bost zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua.
- Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa.
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua.
- Ahalduzko eta Partaidetzako Udal Eskola.
- Demokrazia Partizipatiboaren Iruñeko Tokiko Behatokia.

Berariazko zerbitzu horiez gain, Herritarren Partaidetzako teknikariek beste zerbitzu batzuk ere ematen dituzte.

### Helburua:

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarrek eta profesionalak eskura izatea zerbitzu horiek.
- Gizarte-loturak eta herritarren jarrera aktiboa sustatzea.
- Lankidetzaren dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapeneraren alde egiten duten herritarren artean.

- Gaitze-prozesuak garatzea, lurraldeko eragile sozialei zuzenduak, partaidetzan eta gizartea ahalduzko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezten eta gogoeta egin dezaten.

### Nori zuzendua:

Sozietate zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarteetara, kolektiboetara eta entitateetara, Udaleko eta Administrazio Publikoko langileetara (politikariek eta teknikariek) eta alor soziokomunitarioko langileetara (hezkuntza, kultura, osasun, ingurumen eta abarrekoei).

### Kokapena eta harremanetarako datuak:

Kondestable Civivoxa

(Kale Nagusia 2, 2. Solairua).

**Tel:** 948 42 02 66

**E-posta:** emep@pamplona.es

**Web:** www.participa.pamplona.es

**Facebook:** participa.pamplona

**Twitter:** @participa\_pna

**YouTube:** participa.pamplona

**Flickr:** participa.pamplona

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera,  
10:00-14:00 eta 17:00-20:00

## APUE

Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola aktiboa da, doakoa, iraunkorra, herritarrei zein udalerriarren beharrei irekia, eta herritarren partaidetzaren, berdintasunaren eta gizartearen ahalduntzearen arlokoa. 2017ko urritik abendurako hiruhilekoan 19 ikastaro eskainiko ditu, batzuk gaztelaniaz, beste batzuk euskaraz, hiru gai-ardatz hauetan banaturik:

### 1. Ahalduntze pertsonala

Ikaskuntza-guneak, gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, betiere parte-hartzeari begira.

### 2. Taldeen eta erakundearen ahalduntzea

Ikaskuntza-guneak, talde-jarduna bideratzeko, kudeaketa asoziatiborako, gure erakundearen barneko eta kanpoko komunikaziorako, taldeak dinamizatzeko, eta abarrerako.

### 3. Gizartearen eta komunitatearen ahalduntzea

Ikaskuntza-guneak, sarean lan egiteko, elkarteen arteko koordinaziorako, ekintza komunitarioarako eta gizarte eraldatzeko metodologia, teknika eta teknologien garapenerako.

## APUEREN ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

APUEk prestakuntza- eta sustapen-zerbitzuak eskaintzen ditu.

### Prestakuntza programak:

- Etengabeko prestakuntza (hiruhilekoa).
- Prestakuntza nahieran (gizarte-erakundeendako).
- Prestakuntza elkarteekin (prestakuntzarako diru-laguntzen bidez).

### Sustapen ekintzak:

- Jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, etab. antolatzea.
- Bolutarioen, partaidetzaren eta solidaritatearen balioak hedatzeko kanpainak eta erakusketak eginez, eta komunikabideekin elkarlanean arituta.
- Argitalpen propioak egitea.

## LANKIDETZA APUEREGIN: PRESTATZAILEEN ETA IKASTARO-PROPOSAMENEN POLTSA

Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskolak (APUE) prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa bat sortuko du, Eskolan prestatzaile gisa aritu eta prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten horiek izena eman dezaten. Eskolako prestatzaile-poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauek osatua:

- Aurkezpen-gutuna

- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae

Proposamenak [emep@pamplona.es](mailto:emep@pamplona.es) helbidera bidali beharko dira, edo aurrez aurrez aurkeztu Kondestablen (Kale Nagusia 2, 2. Solairua)

**Tel:** 948 42 02 66

Argibide gehiago hemen: Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola (APUE)

Urte bakoitzean, etengabeko prestakuntzako hiru programazio eskainiko ditu APUEK, hiru hileko bakoitzean bana: urtarrietik martxora, apiriletik ekainera eta urritik abendura. Argibide gehiago, hemen: <http://participa.pamplona.es/> Ikastaroen formatua eta iraupena honako irizpide hauekin bat antolatuko da:

XS	2 - 8 ordu
S	8 - 18 ordu
M	18 - 45 ordu
L	45 h - 80 ordu
XL	80 ordu baino gehiago

## IKASTAROAK 2017ko URRITIK ABENDURA



### 1. AHALDUNTZE PERTSONALA

- Gamifikazioa, parte-hartzea eta konpromisoa lantzeko (16 ordu).
- Antzerkia gizaratean esku hartzeko eta ahalduentze indibidual zein kolektiborako tresna gisa (16 ordu).
- Sare sozialak eta horien erabilerak-Euskaraz (12 ordu).
- Aktibatu zure boza: emakumeak jendaurrean hizlari (10 ordu).
- Lantegia: Nire edertasuna marrazki bihurtuta (8 ordu).



### 2. TALDEEN ETA ERAKUNDEEN AHALDUNTZEA

- Ziberaktibismoa: parte hartzeko beste modu batzuk (5 ordu).
- Talde-jardunak eta prozesu kolektiiboak bideratzea (36 ordu).
- Sormena, erakundeetako berrikuntzari begira (13 ordu).
- Komunikazioa partaidetzari begira (12 ordu).
- Elkarteen webguneak sortzea (2,5 ordu).
- Gazteen dinamizazioa, gailu mugikorren bitartez (7 ordu).



### 3. GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN AHALDUNTZEA

- Feminismoen Eskola (55 ordu).
- Gizalegezko diseinua. Diseinua, Lurraldea eta Adimen kolektiboa. CivicWise (16 ordu).
- Aldaketaren kudeaketa prozesu kolektiiboetan (12 ordu).
- Zurrumurruen aurkako eragileak (12 ordu).
- Prestakuntza, zurrumurruen aurkako estrategietan prestatzaile ari direnendako (14 ordu).
- Generoa, kulturartekotasuna eta giza eskubideak, ikuspuntu integratzaile batetik (10 ordu).
- Clown gizonendako: galtzen ikasten (7,5 ordu).
- Erotika 2.0: IKTen erabilera, sexualitatea eta gazteak (10 ordu).

## ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEAK

### **MATRIKULA DOAKOA DA**

Ikastaroak, oro har, 18 urtetik gorakoei zuzenduak dira, salbu eta ikastaro jakin batzuk, zeinen kasuan prestakuntza-jardueraren informazioan adieraziko baita nori zuzendua den.

Behin-behinekoz izena emateko epeak berariaz zehazten dira ikastaro bakoitzean.

Oro har, izena emateko epea irailean zabalduko da, eta ikastaroa hasi baino bi aste lehenago itxiko.

Ikastaroak gaztelaniaz eta euskaraz eskainiko dira.

Behin-behinekoz izena emateko, fitxa bat (deskargatu) bete beharko da ikastaro bakoitzeko, eta hura aurkeztu:

### **Aurrez aurre:** “Zentro. Elkarlaneko

Gunea”n. Kondestable Civivoxa. Kale Nagusia 2, 2. Solairua. Hona jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

**On line:** izena emateko fitxa [emep@pamplona.es](mailto:emep@pamplona.es) helbidera igorrita.

Behin-behinekoz izena emateko epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez. Pertsona onartuek berretsi egin beharko dute parte-hartzea, behin betikoz izena emanda. Ikastaroren baterako eskainitako lekuak baino eskaera gehiago badira, partaideak hautatuko dira ikastaro bakoitzaren berariazko irizpideen arabera. Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren %90era agertu ez diren pertsonen kasua. Halaber, bertaratzeko agiria emanen zaie ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.

### **Argibide gehiago, hemen:**

APUE. **Tel:** 948 42 02 66  
Herritarrendako Arreta Zerbitzua.

**Tel:** 010 - 948 42 00 10

# APUE

**Ahalduntze eta Partaidetzako  
Udal Eskola**

Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta  
Gizarte Ahalduntzeko Alorra



Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea

Kondestable Civivoxa  
Kale Nagusia 2, 2. Solairua



# 1. AHALDUNTZE PERTSONALA

**S** 16 ordu

## 1. GAMIFIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA KONPROMISOA LANTZEKO

Joko-arauak aldatu dira. Gizartearen eraldaketa bizi dugu. Aldaketa-testuinguru horretan gamifikazioa tresna erabilgarria eta eraginkorra da konpromisoa zein esperientzia partizipatibo berriak sortzeko, betiere jolasean oinarritutako teknika eta estrategiak ballatuta.

### IKERTU / Diseinatu al daiteke dibertsioa?

Pertzepzioak gorabehera, baliteke jolasa izatea gakoetako bat gizartearen parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzeko, pizteko. Lantegiari hasiera emateko, bideojokoak eta gizartea lotzen dituzten oinarriak aurkeztuko dira.

- Partaidetza- eta konpromiso-krisia gizartearen.
- Zer lotura daude bideojokoen eta gizartearen artean?
- Jolas-mekaniken ahalmena.
- Diseinatu al daiteke dibertsioa?
- Motibazio-faktoreak.
- Atzeraelikadura, aurrerabidea eta maisutza.
- Motibazioak, nahiak eta jarrerak.

### APLIKATU / Parte-hartzea eta konpromisoa sortu

Asmatu duzu! Lantegi honetan zure esperientzia propioa aplikatuko duzu. 20 minutu eskasean jolasaren prototipoa egin, gero jolas-diseinatzaile gisa duzun sen hori plazaratu eta gamifikazio-diseinu propioa sortuko duzu, eta horren gaineko balorazioa garbia jaso.

### Edukiak:

- Jolasak prototipatzeko lantegia: Jolasaren atomoak.
- Jolasean oinarri duten irtenbideen lantegia: game Thinking.
- Game Thinking + parte-hartzea eta konpromisoa.
- Gamifikazioa diseinatzeko lan-esparruak eta tresnak.
- Gamifikazioa diseinatzeko lantegia.
- Maila-lantegia.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Iñaki Huarte Gorraiz (Ouiplay)

**Datak:** Urriak 18 eta 25. Azaroak 15 eta 22

**Ordutegia:** Asteazketan, 17:00-21:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 5. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 6

S 16 ordu

## 2. ANTZERKIA GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETA AHALDUNTZE INDIBIDUAL ZEIN KOLEKTIBORAKO TRESNA GISA



### 1. AHALDUNTZE PETRSONALA

*"Uste dut antzerkiak zoriona ekarri behar duela, gure garaia eta gure burua hobeki ezagutzen lagundu behar digula. Ezagutzeko modu bat da, eta gizartea eraldatzeko bidea ere izan behar du...Guztiok gara aktore; herritarra ez da gizartean bizi dena, baizik eta gizartea eraldatzen duena!"*

Augusto Boal aktore eta antzerkigile brasildarrak, zapalduaren antzerkiaren sortzaileak, ezin hobeto laburtzen du bere aipu horretan lantegi honetan proposatzen zaiguna: hitzordu bat non ongizate gune bat sortuko baitugu, askatasunez disfrutatu, gozatu eta jolasteko, barre egiteko eta ondo pasatzeko...betiere honako hauek lantzeko, besteak beste: gure gorputza eta ahotsa, bost zentzumenak, des-mekanizazioa, konfiantza, kontaktua, sormena, adierazpena eta emozioak. Antzerkiak, gainera, parada ematen digu gure burua ezagutzeko, errealtatea aztertu eta gure iritziz aldatu behar den hori moldatzeko. Dinamikak eginen ditugu konfiantzazko giroa sortzeko, eta gero, taldean sor daitezkeen intereseko gaiak identifikatu eta jorratuko ditugu, horien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko asmoz, nola eta jardunbideak edo gure bizitzetan zein gizartean gertatzen diren egoerei aurre egiteko bestelako moduak "entseatuta". Antzerki-foro edo eszena-foro txikiak sortuko ditugu, eta horiek jendaurrean erakutsi, herritarrak barne hartuko dituen elkarrizketa ireki batean parte hartzeko, halako elkarrizketa batean non, berbaliziotik ihesi, antzerkia eta ekintza izango baitira protagonista. Halaber, lortu nahi da parte-hartzaileek lantegiko bizipenak eta antzerki-tresnak beretzat gorde ditzaten,

gerora, beren kolektibo, elkarte, lantoki, lan-esparru edo eguneroko bizitzan, bizipen eta tresna horiek berreskuratu, bere egin eta ugaritu ditzaten.

### Edukiak:

- Berotzeko eta erlaxatzeko ariketak eta bestelakoak: artikulazioak eta giharrak, mugimendua, des-mekanizazioa, gorputz-entrenamendua, ahoskera, bost zentzumenen lanketa, kontaktua, arreta, adierazpena, emozioa eta konfiantza.
- Mugimendua, jolas adierazkor eta dramatikoak.
- Inprobisazioa.
- Irudi-antzerkiaren teknikak.
- Bat-bateko antzerkia.
- Zapalduaren antzerkiko tekniken hastapenak (testuinguru batzuetan emakume zapalduen antzerkia esaten zaio orain) eta terapeutika-antzerkiko zenbait teknika.
- Beste teknika batzuk, betiere taldearen premien ala eskaeren arabera.
- Eszena eta esku-hartzeen sormena.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Eider Sainz de la Maza.

Filologoa eta aktore profesionala, irakaslea eta bideratzailea gizarte-eraldaketarako proiektu eta lantegietan

**Datak:** Urriak 10, 17, 24 eta 31

**Ordutegia:** 17:00-21:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko

5. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-29



S 12 ordu

### 3. SARE SOZIALETARAKO TRESNAK ETA HORIEN ERABILERAK

Sare sozialak gure bizitzaren parte garrantzitsua dira. Internet bidezko komunikazioa ezinbestekoa da norbanako, elkarte eta kolektibo anitzendako. Eta komunikazio hori ahalik eta eraginkorrena izan dadin, behar-beharrezkoa zaigu hainbat tresna informatiko erabiltzen jakitea. Mundu digitala gero eta azkarrago doa aurrera, eta askotan, lan nekeza izan daiteke gauza berri asko ikasi eta menperatu beharra. Hartara, lantegi honen helburua da modu errazean ikastea halako baliabideak erabiltzen. Komunikazio-jarduean beharrezkoak diren tresnak identifikatu eta horietan trebatzeko aukera izango dugu.

S 10 ordu

### 4. AKTIBATU ZURE BOZA: EMAKUMEAK JENDAURREAN HIZLARI

Antzinarotik hona, mendebaldeko kultura emakumeen ahots-tonua kontrolatzen saiatu da. Mitologiak eta literaturak, neurri handi batean, munstrokeria, nahasmendu eta heriotzarekin lotu ditu soinu femeninoak. Kulturak eragina izan du ahots-motetan eta horien erabileran, eta eragin horrek badu zerkusirik gizonek eta emakumeek esparru publikoan izan dituzten egitekoekin. Lantegi praktikoa honetan norbera izanen da abiapuntu: gure gorputzak soinu-instrumentu gisa hartuta ahotsaren ahalduntzea landuko dugu, esperimentazioaren bitartez.

#### Edukiak:

- Analisia, gizonek eta emakumeek jendaurrean hitz egiteko duten moduari

Metodologia praktikoa izango bada ere, oinarriko kontzeptu batzuk landuko dira, betiere teknologiaren burujabetza aintzat hartuta eta ikuspuntu kritiko batetik abiatuta.

**Hizkuntza:** Euskaraz

**Nork emana:** Gorka Julio Hurtado, Talaios Koop. Garatzailea, irakaslea, hacktibista eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea. #LEINN irakaslea

**Datak:** Azaroak 20, 21 eta 22

**Ordutegia:** 17:00-21:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4.-5. Aretoak (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Azaroak 10

eragiten dioten faktore kultural eta sozialei buruz.

- Gorputza, soinu-instrumentu gisa.
- Ahotsa trebatu eta proiektatzeko baliabideak.
- Anatomia-printzipioak, ahotsa ongi eta gaizki erabiltzearekin lotuak.

#### Emakumeei soilik zuzendutako ikastaroa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Zahira Montalvo Herrero

**Datak:** Urriak 18, 19 eta 20

**Ordutegia:** Urriak 18, 16:30-20:30; Urriak 19, 17:30-20:30; eta Urriak 20, 17:30-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-29



1. AHALDUNTZE PERSONALA



## S 8 ordu

### 5. LANTEGIA: NIRE EDERTASUNA MARRAZKI BIHURTUTA

Lantegi honetan marrazketa baliatuko dugu gure gorputzari behatzeko eta begirada propioa sortzeko gure edertasun bakar eta bereziari so egiteko. Hartara, inposatutako edertasun-kanonei buruzko hausnarketa egingo dugu, eta aztertuko dugu zer nolako eragina duten norberaren autoirudian eta besteekin harremanak izateko moduetan.

#### Edukiak:

- Anlisi kritikoa eta feminista, Artearen Historian izandako edertasun-kanonei buruz.

- Marrazkia, norbera ezagutu eta ahalduntzeko tresna gisa.

#### Emakumeei zuzendutako ikastaroa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Bea Aparicio eta Susana Carramiñana

**Datak:** Azaroak 11

**Ordutegia:** 10:00-14:00 eta 16:30-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko

4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11- Urriak 27



## 2. TALDEEN ETA ERAKUNDEEN AHALDUNTZEA

## XS 5 ordu

### 6. ZIBERAKTIBISMOA: PARTE HARTZEKO BESTE MODU BATZUK

Azken urteotan, gora egin du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilerak –internet, sare sozialak, mugikorak, etab.–: horiek erabiltzen baititugu informazioa partekatzeko, komunikatzeko, gure ideiak ezagutzera emateko eta interes eta kausa komunen inguruan mobilizatzeko, halako moduan non funtsezko eragile bihurtu diren gizarte-harremanak aldatzeko eta ezagutzariloak eraikitzeko. Teknologia-tresna horiei esker aktibismoaren modalitateak eraldatuz doaz; horrexegatik, berebiziko garrantzia dauka teknologia horiek kritikoki eta modu arduratsuan erabiltzeak, ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, gizarte-mobilizazioari begira. Ikastaro honetan ziberaktibismoaren ezaugarri nagusiak eta kanpainak egiteko tresnak landuko ditugu, eta hausnarketa eginen dugu kanpainak abiarazteko moduen inguruan.

#### Edukiak:

- 1. Blokea:** Komunikazio digital kritikoa: ICTen erabileraren gaineko analisi integrala.
- 2. Blokea:** Eraldaketa- eta inplikazio-mailak online aktibismoan: Clickaktibismoa, ziberaktibismoa eta teknopolitika.
- 3. Blokea:** Aktibismoarako tresna digitalak.
- 4. Blokea:** Aktibismo-kanpainak abiarazi eta zure erakundea engaiatzeko gakoak.

#### 16 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Adrián Aguayo Llanos (Pedernal Educación y Tecnología erakundea eta Gestión y Participación Social Fundazioa)

**Datak:** Urriak 26 eta 27

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza kalea, 30)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 11

## 7. TALDE-JARDUNAREN ETA PROZESU KOLEKTIBOEN BIDERATZEA

Gero eta maizago, elkarrekin lan egitea erabakitzen dugu, erabakitzeko guneak, erantzukizuna, ekintza eta emaitzak partekatzea bilatzen duten kolektiboetan. Kooperatibak, elkarteak, fundazioak, enpresa partizipatiboak, eta abar. Erakunde horien egiturak bat datoz parte hartzeraren animatzen duten printzipioekin eta balioekin. Halaber, zenbait gaitasun eta trebetasun berri eskatzen dituzte, prestakuntza-programetan gutxi garatu direnak. Modulu hauek xede dute parte-hartzaileak hurbiltzea “Bideratzea” izeneko terminoan dauden tresnetara. Diziplina berritzailea da, taldeak eta erakundeak kudeatzea xede duena, non hainbat diziplinatan garatutako jakintza —erakundeetako kudeaketako kolektiboaren ingurukoak— biltzen baitira.

### Edukiak:

**Komunikazioa.** Tresnak hala bideratzaileendako nola talde zein kolektiboetako kideendako. Dinamikak: Modulu honetan eskura dauden zenbait metodo aztertuko ditugu: CNV (indarkeriaririk gabeko komunikazioa), “Espere” delako metodoa...

### Aniztasunaren kudeaketa: desberdintasunak eta emozioen espazioa.

Taldean aritzean, zenbaitetan tentsio-une handiak izan daitezke, eta horrek emozioak aktibatzen ahal ditu. Antolaketaren kultura dela-eta, ez da beti denborarik egoten sortzen diren emozio horiek ulertu eta kudeatzeko. Horiek horrela, pertsonen osagai diren emozioak barne hartzen dituen antolaketaren barruan kokatzen da

“bideratzea”, eta hartara, dinamikak sortzen ditu taldearen espazioa “garbitzeko” eta bide emateko taldeek eta pertsonen “beste hizkuntza” horretatik ikas dezaten.

Dinamikak: Foroa, klanen arteko gerra, prozesuei begirako foroa.

### Saioen diseinua: “Bideratzea” martxan.

Bilera eta biltzar mota ezberdinek argitasuna eskatzen dute, adierazteko moduez bezainbatean. Argibide-saioak, eztabaida-saioak, erabakiak hartzekoak, ikerketa kolektiboak, horra saio mota desberdinak, erritmoaren, partaidetza-mailaren eta abarren arabera.

Bideratzaile-lanetan ari den horrek taldearen premien berri izan behar du, eta horren arabera dinamikak diseinatu. Dinamikak: Parte-hartzeen diseinua.

### Ikastaro honen ziurtagiria, lifac-eren eskutik (Bideratzea eta Aldaketa lortzeko Institutua)

**Kontsultatu baldintzak hemen:** [emep@pamplona.es](mailto:emep@pamplona.es)

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Mabel Cañada eta Mauge Cañada, lifac-eko kideak (Bideratzea eta Aldaketa lortzeko Nazioarteko Institutua) eta talde komunitarioen bideratzaileak, 40 urtez; eta losu Santesteban

**Datak:** Urriak 20-21, Azaroak 24-25, Abenduak 15-16

**Orduetgia:** Ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatetan, 10:00-14:00 eta 16:30-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 5. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 6



## 8. SORMENA, ERAKUNDEETAKO BERRIKUNTZARI BEGIRA



### 2. TALDEEN ETA ERAKUNDEEN AHALDUNTZEA

Erakunde arrakastatsuenek sobera ongi dakite sormena bultzatzea hazteko modurik errentagarriena dela. Ongi ari den edozein entitatek sormen-puntu jakin bat dauka; alabaina, benetan baliozko berrikuntzak txertatzen dituzten horiek dira nabarmentzen direnak.

Horra sormenak funtzionatzen duen froga garbia. Sormena pizgarria da helburu berriak erdiesteko, arazoei aurre egiteko, hobekuntzak sartzeko aparteko arazorik ez dagoenean ere, ekintzaile izateko, geldialdi eta blokeo-aldiak gainditzeko, aukerak baliatzeko eta besteengandik bereizteko, berezko nortasuna duen erakunde bat sortuta.

Baina hori guztia lortzeko ez da nahikoa "brainstorming" delakoa egitea eta ideia bikainak saritzea. Sormena azaleratu dadin behar-beharrezkoa da hura garatzeko erabaki irmoa hartzea eta jardunbide argiak izatea, berariazko estrategiak baliatuta.

#### Edukiak:

**1. ZATIA: Sormen-gaitasuna, berritzaile izateko.** Sormenari eta berrikuntzari buruzko oinarriak.

- Jarrera sortzailea eta berrikuntza-gaitasuna. Jarduketa-plana, erakundeen jardunerako aplikaturik.
- Eduki osagarriak.

**2. ZATIA: Sormenerako estrategiak, talde-lanean.** Talde-lanaren oinarriak.

- Talde-lanean aritzea, sormena baliatuta.
- Ideiak sortzeko teknikak. Aplikazioa erakundeen proiektuetan.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Pilar Peña Peña

(Prestatzailea eta aholkularia Sormen eta Berrikuntzarako Neuronilla Fundazioan)

**Datak:** Urriak 27 eta 28

**Ordutegia:** Ostiralean, 16:30-21:00 eta larunbatean, 9:00-14:00 eta 16:30-20:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 13

## 9. KOMUNIKAZIOA PARTAIDETZARI BEGIRA

Taldeko trebakuntzak bide ematen du oinarri batzuk ezartzeko gerora estrategia eraginkorrak diseinatzeari begira, modu horretan gizarte-mugimenduak eta herritarren kolektiboak laguntzeko beren komunikazio-helburuak erdietsi ditzaten. Honako hauek dira prestakuntza-saio hauen helburuak:

- Gogoeta laburra egitea komunikazio digitalaren oinarriko kontzeptuen inguruan.
- Ulertzea hala gaur egun komunikazio digitalak duen oihartzuna nola pertsonen portaeretan, aktibismoan eta ziberaktibismoan izandako aldaketak.
- Gako nagusiak ikastea, plangintza eraginkor eta jasangarri bat egiteko.
- Komunikazio digitalaren mekanikak eta euskarri desberdinek duten lotura ulertzea: webguneak, sare sozialak, berariazko plataformak eta beste bide mota batzuk jarduketa egokiak ezartzeko, betiere helburuak lortu eta hartzailengana iriste aldera.
- Tresna eta estrategia eraginkorrak identifikatzea, gure jarduerarekin lotura dutenei zuzendutako jarduketak egiteko online komunikabideetan.
- Baliabideak eta trikimailuak ezagutzea, gure jardueren hartzaila izan daitezkeen pertsonak atzemateko, erakartzeko eta haiekin konektatu eta solas egiteko.
- Azpimarratzea zein garrantzitsua den jarduketa-planen kontrola eta inpaktu-neurketa azkarra eta erraza egitea, jarduketak baliozkoak diren erkatzeko metodo gisa.

### Edukiak:

1. Komunikazio digitalaren testuingurua.
2. Komunikazio eraginkorra eraikitzeko gakoak.
3. Komunikazio digitalerako bideak.
4. Entzumen aktiboa eta sareko monitorizazioa.
5. Adierazleak eta emaitzen analisiak.

### Hizkuntza:

**Nork emana:** Arantxa Sainz de Murieta (Komunikatik), marketin eta komunikazio digitaletan aditua

**Datak:** Azaroak 3 eta 4

**Ordutegia:** Ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatean, 10:00-14:00 eta 16:30-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko

4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 20



XS 2,5 ordu

## 10. ELKARTEEN WEBGUNEAK SORTZEA



### 2. TALDEEN ETA ERAKUNDEEN AHALDUNTZEA

Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizartea Ahalduntzeko Alorrek aukera ematen dizu, entitate zaren aldetik, zure webgune propioa sortzeko. Elkarteek ikastaro honen bitartez sortzen dituzten webguneak Iruñeko Udaleko plataforma komun batean kokatuko dira. Bere jarduera Iruñean egiten duen irabazi asmorik gabeko edozein elkarte edo entitatek baliatu dezake zerbitzu hau.

#### Edukiak:

- Webguneak argitaratzeko oinarritzko kontzeptuak.
- Formatu errazeko webguneen eredua (1. txantiloia) eta webgune osatuago baten eredua (2. txantiloia). Behin bi txantilo horiek aurkeztuta, zerbitzu hau baliatu nahi duten erakundeek aukeratu beharko dute zein webgune mota garatu nahi duten. Webgune osatuago baten alde (2. motakoaren alde) egiten duten elkarteek, izena eman ahalko dute, gerora, Wordpressen edukiei buruzko hastapen-ikastaro batean.
- Edukiak sortzea, formatu errazeko webgune baterako (1. mota).

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Jesús Vera, Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA) eta Zentro Elkarlaneko guneko langileak.

**Datak:** Azaroak 13

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Hitzaldi-Aretoa (Kondestablearen Jauregia)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Azaroak 13

**Ikastaro irekia.** Ikastaro honetarako, ez da izena emateko fitxa bete behar, irekia baita. Nolanahi ere, ikastaroa hobeki antolatze aldera, gomendagarria da izena ematea, emep@pamplona.es helbidera mezu bat bidaliz, bertan adierazita erakundearen eta bertaratuko den pertsonaren izena.

## 11. GAZTEEN DINAMIZAZIOA, GAILU MUGIKORREN BITARTEZ

Milurtekoa aldatu eta hortik aurrera jaiotako gazteak –Z belaunaldia ere deiturikoak– pantaila artean mugitzen dira, eta ondo moldatzen dira hala mundu digitalean nola analogikoan. Orduak ematen dituzte konektaturik, beren gailu mugikorren bitartez, smartphonekin kasu. Horiek, hain zuzen ere, tresna paregabea izan daitezke gazteekin aritzen diren profesionalentzat. Ez zara ondo moldatzen mugikor eta sare sozialekin? Ez dakizu zein app izan daiteke zuretzat baliagarri? Ikastaro hau zuretzat egina da.

### Edukiak:

#### 1.Z belaunaldia, transmedia gazteak

- Ezaugarri nagusiak eta erabiltzen diren baliabideak.
- Baliabideak eta gailuak, internet soziala.

#### 2.Smartphonen eta baliabide erabilgarrien bilakaera

- Geolokalizazioa, ikus-entzunezkoak, sentsoreak, sare sozialak, konektibitatea, arlo akademikoa.

#### 3.Ezinbesteko app-ak, gazteekin aritzeko

- Smartphonetan erabil daitezkeen app-en analisia, eta horien aplikazioa dinamizazio-jardueretan.

#### 4.Gailu mugikorrek gazteekin erabiltzeko jarraibide egokiak

- Ikus-entzunezko lehiaketak, geolokalizazio-ariketak, sare sozialen dinamizazioa.
- Smartphoneak ikaskuntzari begira (ulearning).

#### 5.Taldeakako jarduera praktikoa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** José María Regalado López, Gizarte-langilea, prestatzailea eta Inmersión TIC Academy "Acompañamiento para la sociedad digital" proiektuaren fundatzailea <http://inmersiontic.es>

Twitter: @jmlregalado

**Datak:** Urriak 2 eta 3

**Ordutegia:** 17:00-20:30

**Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza kalea, 30)

**Izen-ematea:** Irailak 11-22

Mugikorra ekarri behar da, ahal dela datu-konexioarekin





### 3. GIZARTEAREN ETA KOMUNITATEAREN AHALDUNTZEA

L 55 ordu

## 12. FEMINISMOEN ESKOLA

Feminismoak emakumeen bizitza eraldatu eta hobetzeaz gain, egunero-egunero ari da gizarteko balioak eta egiturak aldatzen, eta ezbaian jartzen ditu mendeetan zehar finkatu eta natural bihurtutako pertzepzio eta ideiak. Ikastaro honen bitartez Feminismoan murgilduko gara, eta gizarte-mugimendu, paradigma eta politika-teoria kritiko gisa izan duen bilakaera ezagutuko dugu. Ibilbide bat proposatuko digu, non topatuko baititugu bibliografia- eta historiografia erreferentzia berri eta pizgarri ugari, emakume-izen piloa, une historiko gogoangarri eta ezinbestekoak, borroka amaigabeak, bizipen kolektiboak eta bakarkakoak...Horrek guztiak ez gaitu axolagabe utziko.

#### Edukiak:

- I. BLOKEA-** Genero-teoria: sarrera
- II. BLOKEA-** Feminismoaren historia
- III. BLOKEA-** Generoa, desparekotasunak eta aldaketa soziala
- IV. BLOKEA-** Subjektibotasunak eta generoa
- V. BLOKEA-** Generoa eta botera

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** (soziologoa), Mati Cuesta (antropologoa), Ana Díez de Ure (historialaria), Itziar Ziga (kazetaria eta idazlea), Pili Mikeo (psikologoa), Irene Lapuerta (Politika eta Gizarte Zientzietako doktorea), Camino Jusué (Filosofiako doktorea), Yolanda Jubeto (Ekonomiako doktorea), Amaia Bacigalupe (Osasun Publikoko doktorea), Josune Irigoien (Berdintasuneko teknikaria), Patricia Amigot (Psikologia Sozialeko doktorea), Mauge Cañada (psikologoa), Jabi Arakama (musika-irakaslea eta bideratzailea maskulinitate berrien taldeetan)

**Koordinatzailea:** IPES Fundazioa

**Datak:** Astelehenetan, urriaren 2tik martxoaren 19ra bitarte

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-22



## 13. GIZALEGEZKO DISEINUA. DISEINUA, LURRALDEA ETA ADIMEN KOLEKTIBOA. CIVICWISE

Ekonomian, gizartean, politikan... eraldaketa ugari gertatzen ari dira alor horietan guztietan. Gure bizimodua eta hiria ulertzeko modua aldatu egiten dira. Agertoki berriak sortzen dira, non ulertu egiten baita hiriaren kudeaketa herritarrekin etengabeko harremanean gauzatu behar dela.

Modulu honen bitartez hiri-kudeaketa ulertzeko modu berrietara hurbildu nahi dugu, eta gogoetarako zenbait erreferentzia eta testuinguru eskaini, zeinen oinarria sektore publikoaren, pribatuaren, unibertsitatearen eta etorkizuneko herritarren arteko lankidetzeta baita. Hori lortzeko, oinarritzko zortzi ardatz hauek jorratuko ditugu: Teknologia, Komunikazioa, Kultura, Gizartea, Politika, Ekonomia, Lurraldea eta Adimen Kolektiboa.

Abiapuntua gogoeta izango da, Urban Commons delakoei eta herritarren antolatzeke gaitasuna sustatu eta baliatzen duten administrazio publikoei buruz. Izan ere, lurralde eta testuinguru horiek planifikatzean aintzat hartzen dira herritarrek, adimen kolektiboko prozesuen bitartez, lor ditzaketen azpiegiturak.

Testuinguru berri horretan Civic Designerraren profil berria ere sortu da, eta gure aburuz, zeregin garrantzitsua izan dezake hala administrazioaren barruan nola kanpoan.

### Edukiak:

- Sarrera (Zergatik eta zertarako gizalegezko diseinua?).
- Teknologia (hibridazio fisiko-digitala, teknologiaren papera, Mobile Apps).
- Komunikazioa (Sare-komunikazioa, herritar-kazetaritza, gardentasuna eta kontu-erematea).
- Politika (adhokrazia, multipertenentzia, exhituzioa, demokrazia likidoa).
- Kultura (kultura guneak, herritarrendako guneak, tokiko identitate, komunzaletasuna eta lankidetzeta).
- Ekonomia (gizalegezko ekonomia, ekonomia toki-globala, alde biko ekintzailatza, denbora-bankua, txanpon alternatiboak).
- Gizartea (herritar-ostea, herritar ekoizle-konsumitzaileak, autoantolaketa).
- Lurraldea (kode irekiko hirigintza, auzoa eta giro-kontzientzia, dimentsio toki-globala, hiri kondibisioa).
- Adimen kolektiboa (tokiko komunitatea, sare-pentsamendua, konektatutako jendetza, adimen kolektibo kokatua).
- Zer da Civic Design; nor da, eta zer egiten du Civic Designerrak; Civic Design Method, Placemaking, adibidea: Dreamhamar).

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Domenico Di Siena (IT), Arkitektoa, Civic Designerra eta Ikertzailea

**Datak:** Urriak 4, 5, 6 eta 7

**Ordutegia:** Asteazken, ostegun eta ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatean, 10:00-14:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-22





S 12 ordu

## 14. ALDAKETAREN KUDEAKETA PROZESU KOLEKTIBOETAN

Erresistentzia, porrot eta amets zapuztuak, ikasbide. Estrategia jasangarri eta inklusibo baterantz, aldaketa sozialean

Lantegi honetan gogoeta eginen dugu gizarte-inpaktuen inguruan izandako bizipenez, erakundeetan edo lankidetzaz-prozesuetan murgildurik. Ikasiko dugu funtzionatu ez zuten proiektuak, ezarritako helburuak bete ez zituzten estrategiak eta ekimenekin bat egin ez zuten lagunak ikasbide hartuta. Hizpide hartuko ditugu arrakastak, epe luzeko eraginak, komunitate-ekintzaren jasangarritasuna, sareen eraikuntza, eta abar. Parte-hartzaileen esperientziak landuko ditugu, eta beste proiektu eta eredu batzuk ezagutuko ditugu aldaketa eta prozesu komplexuen gorabeherak kudeatzeko.

### Edukiak:

- Prozesuak diseinatzeko ereduak edo egiturak.
- Oreka sistema sozialetan. Aldatzea mugimendu natural bat da, bestea irautea da.
- Teknologia berriak bereganatzea, prozesu komunitarioei begira.
- Entzutea eta komunikatzea; gure ekarpena zenbait ikuspuntu bildu eta konfiantza sortzen duten zirkulu birtuosoen eraikuntzan.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Asier Gallastegi (Korapilatzen), Aholkularia, Prestatzailea eta Coach-a, aldaketa-proiektuak garatzen ditu maila sozialean, antolakuntzazkoan, taldekoan eta pertsonalean

**Datak:** Azaroak 17 eta 18

**Ordutegia:** Ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatean, 10:00-14:00 eta 16:30-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Azaroak 3

## 15. ZURRUMURRUEN AURKAKO ERAGILEAK

Jatorriz beste nonbaitekoa den inori zuzendutako komentario iraingarririk entzutean deseroso sentitzen al zara? Sutan jarri, zure onetik atera eta horien aurka – arrakastarik gabe– egiten al duzu? ZURRUMURRUEK EZ ZAITZATELA OZPINDU!

Prestakuntza-jarduera honen xedea da kontzientzia kritiko bat piztea gizarte-kolektibo jakin batzuen inguruko estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurruen gezurkeriari aurre egiteko, eta ohartzea halako gezurrek pertsonen bizitzetan duten benetako eraginaz.

Zurrumurruak zergatik sinistu eta zabalzen ditugun aztertu baino, horiek desegiteko – edo ezbaian jartzeko behintzat– eman daitezkeen erantzun-estrategiak landuko ditugu. Estrategia horien bitartez elkarrizketa-gaitasunak hobetuko ditugu, hartara emaitza hobekak lortzeko.

Funtsean, trebakuntza praktikoa izanen da zurrumurruen aurkako eragile gisa aritzeko, hots, ingurunean eguneroko entzuten ditugun zurrumurruak desegiten laguntzeko, horiek izaten baitira, maiz, diskriminazioen oinarri.

### Edukiak:

**1. saioa: Testuingurua:** Immigrazioaren beharra eta estereotipoei eustea. (Xabi Aierdi, UPV)

**2. saioa: Baina, ez esan!** Komunikazio- eta emozio-estrategiak zurrumurruak kudeatzeko. (Raquel Moreno, D-CAS)

### 3. saioa: Nola izan, praktikan, zurrumurruen aurkako eragile?

Aurkezpena: Zurrumurruen aurkako Iruñeko Estrategia eta ZASKA Zurrumurruen aurkako Nafarroako Sarea. (Udal-teknikari baten eta Zurrumurruen aurkako Nafarroako Sarearen ordezkari baten eskutik)

### 16 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:**

- Xabier Aierdi Urraza, Soziologiako irakasle titularra, 1994tik hona, EHuko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean  
- Raquel Moreno (D-CAS). Soziologian lizentziaduna eta espezialista gizarte-partaidetzan (Partaidetza eta Garapen Jasangarriko graduondoa, UABn)

- ZASKA Zurrumurruen aurkako Nafarroako Sarea. Sarea 2016an sortu zen, gizartearen elkarbizitza oztopatzen duten berbaldi diskriminatzaileak direla bide kezkatuak zeuden 28 entitate eta gizarte-kolektibo eta zenbait erakunde zein pertsonaren eskutik

**Datak:** Urriak 20, 21 eta 28

**Ordutegia:** Ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatetan, 10:00-14:00

**Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza kalea, 30)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 6



## 16. PRESTAKUNTZA, ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIETAN PRESTATZAILE ARI DIRENENDAKO



Beren entitate eta kolektiiboetan zurrumurruren kontrako strategiak aplikatu nahi dituzten lagunei zuzendutako ikastaroa da, eta xede du sareak sortzea, jatorriz beste nonbaitekoak diren gainean entzuten ditugun estereotipoak, aurreiritziak eta zurrumurruak desagiteko.

Metodologia praktiko baten bitartez “bideratzea” eta taldeen kudeaketa landuko dira: zurrumurruren kontrako eragile izateko zenbait dinamika diseinatu eta planifikatuko dira (lantegia, saioak), eta gerora, parte-hartzaileek dinamika horiek bideratzen ahalko dituzte, modu autonomoan.

### Edukiak:

- 1. saioa:** Bizitzan ditugun tresnak, kulturen arteko gogoeta egiteko: nor bere estereotipoak ezagutzea, praktikan. La Xixa Teatre.
- 2. saioa:** Bideratzearen abentura, zurrumurruren aurkako estrategian. Virginia Pañeda Sanz.
- 3. saioa:** Komunikazio- eta emozio-gaitasunak zurrumurruren aurkako estrategia abian jartzeko, eta horren aplikazioa talde-dinamiketan. Raquel Moreno.
- 4. saioa:** Jarduketa zehatzen diseinua. Raquel Moreno.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

### Nork emana:

- Ana Fernández-Aballí Altamirano (La Xixa Teatre). Espezialista komunikazio estrategikoan -kultur arteko prestakuntzan-zapalduaren antzerkiaren metodologiaren eta prozesuen lanketaren bitartez

- Virginia Pañeda Sanz (Youropía) prestatzailea Espainiako Gazteriaren kontseiluko politikan, gazteen partaidetza eta immigrazioko, kulturarteko bizikidetzako eta esku-hartze inklusiboko alorretan - Raquel Moreno (D-CAS). Soziologian lizentziaduna eta espezialista gizarte-partaidetzan (Partaidetza eta Garapen Jasangarriko graduondoa, UABn)

**Datak:** Azaroak 8, 15, 24 eta 25

**Ordutegia:** Asteazkenetan, 17:00-20:00, Ostiralean, 17:00-21:00 eta larunbatean, 10:00-14:00

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko

4. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Urriak 25

## 17. GENEROA, KULTURARTEKOTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK, IKUSPUNTU INTEGRATZAILE BATETIK

Gure gizartea eta komunitateak gero eta anitzagoak dira. Desberdintasunak (beti izan dira, eta gizakiak desberdintzeko behar-beharrezkoak dira) gero eta agerikoagoak dira, are gehiago migrazio-dinamikek eta globalizazio prozesuek izandako bilakaera dela medio. Ikastaro honen bitartez pentsatu, sentitu eta kolektiboki bereganatu nahi ditugu kontu horiek, desberdintasunen bateraezintasuna gainditzeko aukera emango duten bideak topatze aldera, eta bide horien bitartez aurkitzeko, esperientzien bitartez, aurrera egiteko komunikazio- eta bizitza-modu hobeak gure gizarte anitz honetan.

### Edukiak:

- Identitatea, beharrezko oreka pertenezia eta diferentziazioaren artean.
- Topaketa kultura eta identitate anitzen artean: elkarrizketa eta gatazka.
- Begirada zabalagoa: genero-ikuspegia, kulturartekotasuna eta giza eskubideak.

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Ane Iturmendi Vicente eta Renata del Coso (Laskurain Zentroa)

**Data:** Urriak 27 eta Azaroak 3, 10 eta 17 (ostiralak)

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 4.-5. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11- Urriak 13



**XS** 7,5 ordu

## 18. CLOWN GIZONENDAKO: GALTZEN IKASTEN



Jolasteko eta nork bere buruari barre egiteko gogoia besterik ez da behar ikastaro honetan. Hemen ikasiko dugu zer nolako eragina duten patriarkatuaren askotariko adierazpideek gure egunerokoan eta emakume zein gizonekin ditugu harremanetan, zer nolako indarkeria mota dauden, zeinen aurrean jokatzeko dugu tolerantzia handiagoz, zer diren mikromatxismoak, non gauden...eta non egon beharko genukeen.

### Edukiak:

Clown, umorea, gogoeta, begirada kritikoa, maskulinitateak eta konpromisoa.

### Gizonei soilik zuzendutako ikastaroa

**Hizkuntza:** Gaztelaniaz

**Nork emana:** Juan Manuel Rodríguez

**Datak:** Urriak 2, 9 y 16

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Zentro. Kondestable Civivoxeko 5. Aretoa (Kale Nagusia 2, 1. Solairua)

**Izen-ematea:** Irailak 11-22

**S** 10 ordu

## 19. EROTIKA 2.0: IKTEN ERABILERA, SEXUALITATEA ETA GAZTEAK

Internetekin batera, harremanak izateko espazio berri bat sortu da: leku bat non, espazioa, denbora eta bat-bateotasuna direla medio, komunikatzeko, harremanak izateko zein maitemintzeko modu berriak sortu baitira. Eta bertan aritzen dira gazteak, egunero, sare sozialen bidezko harremanetan. Horretaz gain, pornografiak modu masiboan zabaltzeko modua aurkitu du Interneten, eta sarritan kontsumoari eta estereotipo sexisteei lotzen zaie. Hori horrela, eta gazteak jasotzen duten sexu-hezkuntza eskasa aintzat hartuta, behar-beharrezkotzat jotzen dugun gaiaren inguruan hausnartzeko eta esku-hartzeko espazio bat izatea.

### Edukiak:

- Neska eta mutilen sexualitatea, norberaren jarreraren garrantzia.

- Gazteen ezaugarriak eta berezitasunak: autoestimua, norberaren irudiaren kudeaketa, pribatutasuna eta sare sozialak.
- IKTen bidez gerta daitezkeen egoera desegokien identifikazioa eta prebentzioa (kontrola, xantaia, intimitatearen inbasioa...).
- Pornografia sexistaren eragina haur eta gazteengan.
- Hezkuntza-gakoak, IKTen erabilera egokiari begira.

**Hizkuntza:** Euskaraz

**Nork emana:** Ane Ortiz Ballesteros

**Datak:** Azaroak 14, 15, 21 eta 22

**Ordutegia:** 18:00-20:30

**Lekua:** Iruñeko Gaztediaren Etxea (Zangoza kalea, 30)

**Izen-ematea:** Irailak 11-Azaroak 3

## PRESTAKUNTZA ELKARTEEKIN

*Irabazi Asmorik Gabeko Elkarreak - Diru-laguntzak, prestakuntzarako*

Iruñeko Udalak Irabazi asmorik gabeko entitateek prestakuntza proiektuak gara ditzaten diru laguntza deialdia onartzen du urtero. 2017koa lehen deialdia izan da eta zenbait elkarte herritar guztiei zuzendutako ikastaro eta tailerrak martxan jarriko dituzte. Itxita dagoen 2017ko deialdiaren oinarriak hemen kontsultatu daitezke: [goo.gl/pg6P92](http://goo.gl/pg6P92)

Diru-laguntzak ematea irabazi-asmorik gabeko Iruñeko elkarte eta entitateei, 2017. urtean prestakuntza proiektuak finantzatu ditzaten, betiere proiektu horiek helburu izango dutelarik herritarren partaidetzan, berdintasunean eta gizartearen ahalduntzean trebatzeko prozesuak bultzatzea. Deialdi honek tresna bat izan nahi du Udalaren esparruan, elkarrekin eta irabazi-asmorik gabeko entitateek prestakuntza-jarduerak gara ditzaten, helburu harturik herritarren partaidetzako, berdintasuneko eta gizarte ahalduntzeko arloan trebakuntza-prozesuak bultzatzea.

Bi modalitate ezarri dira:

1. Prestakuntza-ekintzak, Berdintasuna eta LGTBlen eskubideak sustatzeko.

2. Prestakuntza-ekintzak, Partaidetza eta Gizartearen Ahalduntzea sustatzeko.

Betiere marko horren barruan, arlo hauek aintzat hartuko dira:

1. Animazio soziokulturala, asoziazionismoa, partaidetza eta komunitate-garapena
2. Sormena eta espresioa
3. Dibertsitate funtzionala, zentzumenetakoa eta adimenekoa
4. Kultura-aniztasuna
5. Sexu-aniztasuna eta genero-identitatea
6. Baterako hezkuntza
7. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna
8. Komunikazio soziala eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
9. Gazteendako dinamizazioa eta informazioa
10. Gizarte-berrikuntza
11. Zeharkako beste ardatz batzuk

Diru laguntza jaso duten elkarten kontaktua eta ikastaroen inguruko informazioa honako helbidean begiratu daiteke: [www.participa.pamplona.es](http://www.participa.pamplona.es)

## PRESTAKUNTZA NAHIERAN, GIZARTE ENTITATEENDAKO

Zerbitzu honen bitartez atzeman nahi dira kolektiboek eta udalerrian egiten diren prozesuek dituzten prestakuntza-beharrak, herritarren partaidetzako, berdintasuneko eta gizartearen ahalduntzearen arloaz bezainbatean. Prestakuntza-modalitate honetan, entitate eta gizarte-kolektiboek

xehetasun osoz adierazi beharko dute zer premia duten, eta Udalak prestakuntza-jarduera antolatuko die. Nahierako prestakuntza honetan ikastaroak irekiak dira, baina berariazko prestakuntza zer kolektibok edo prozesuek eskatu eta horri zuzenduko zaio batez ere.

Herritarren partaidetza bultzatu eta hedatzeko asmoz, aurten II. topaketa bat egingen da, **Nafarroako Partaidetza Jardunaldiak** izenpean. Iruñeko Udalak eta beste zenbait erakunde eta entitatek elkar hartuta antolatu dituzte **azaroaren 6tik**

- 10era** bitarte egingo diren jardunaldi horiek. Hona antolatzaile horien zerrenda:
- Nafarroako Gobernua (Herritarren Arreta eta Partaidetzako Zerbitzua, Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Gazteriako Zuzendariordetza).
  - Iruñeko Udala (Herritarren Partaidetzako, Berdintasuneko eta Gizarte Ahalduetzako Alorra eta Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorra).
  - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF).
  - Herritartasun, Bizikidetzeta eta Aniztasuneko UNESKO katedra.
  - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).
  - Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
  - Nafarroako Soziologoaren eta Politologoaren Elkargoa.
  - Gizarte Laneko Diplomatuaren eta Laguntzaileen Eskola Ofiziala.
  - Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala.
  - Hezitzaileen Eskola Ikastetxe Integratua.

Jardunaldi horiek herritar aktiboek, gizarte-ehunari, teknikariek, ikasleei eta erakundeei zuzenduak izango dira. 2016ko lehenbiziko topaketa horretan egindako hurbilketa-ostean, non herritarren parte-hartzeak gune pluraletan duen papera landu baitzen eta sakondu hiru arlo gakoetan, hots, politika, teknika eta gizarte-ehunaren garapenean, betiere tokian tokikoari erreparatuta. Jardunaldi berri hauetan, aldiz, komunitate-dimentsioa izanen da gai nagusia, zeinari lau interes-ardatz hauetatik helduko baitzaio:

- **Hezkuntza.**
- **Osasuna.**
- **Kultura.**
- **Gizarte Ekintza.**

Jardunaldiek 5 egun iraungo dute eta erakusketek, liburuen aurkezpenek, hitzaldi-markoek eta lantegiek osatuko dute programa, zeinen xedea izanen baita esperientzia eta tresna praktikoak ematea prozesu partizipatiboetarako eta komunitateko lau interes-ardatzetarako.



## URRIA

						1
2 11 Ikast. 12 Ikast. 18 Ikast.	3 11 Ikast.	4 13 Ikast.	5 13 Ikast.	6 13 Ikast.	7 13 Ikast.	8
9 12 Ikast. 18 Ikast.	10 2 Ikast.	11	12	13	14	15
16 12 Ikast. 18 Ikast.	17 2 Ikast.	18 1 Ikast. 4 Ikast.	19 4 Ikast.	20 7 Ikast. 4 Ikast. 15 Ikast.	21 7 Ikast. 15 Ikast.	22
23 12 Ikast.	24 2 Ikast.	25 1 Ikast.	26 6 Ikast.	27 6 Ikast. 8 Ikast. 16 Ikast.	28 15 Ikast. 8 Ikast.	29
30 12 Ikast.	31 2 Ikast.					

1. Gamifikazioa, parte-hartzea eta konpromisoa lantzeko.

2. Antzerkia gizarteen esku hartzeko eta ahalduzte individual zein kolektiborako tresna gisa.

3. Sare sozialetarako tresnak eta horien erabilerak (Euskaraz).

4. Aktibatu zure boza: emakumeak jendaurrean hizlari.

5. Lantegia: Nire edertasuna marrazki bihurtuta.

6. Ziberaktibismoa: parte hartzeko beste modu batzuk.

7. Talde-jardunaren eta prozesu kolektiboen bideratzea.

8. Sormena, erakundeetako herrikuntzari begira.

9. Komunikazioa partaidetzari begira.

10. Elkarten webgumeak sortzea.

11. Gazteen dinamizazioa, gailu mugikorren bitartez.

12. Feminismoen Eskola.

13. Cizalegezko Diseinua. Diseinua, Lurralde eta Adimen kolektiboa. CivicWise

14. Aldaketaren kudeaketa prozesu kolektiboetan.

15. Zurrumurruen aurkako eragileak.

16. Prestakuntza, zurrumurruen aurkako estrategietan prestatzaille ari direnendako.

17. Generoa, kulturartekotasuna eta giza eskubideak, ikuspuntu integratzaile batetik.

18. Clown gizonendako: gaitzen ikasten.

19. Erotika 2.0: IKTen erabilera, sexualitatea eta gazteak (Euskaraz).

## AZAROA

		1	2	3 9 ikast. 16 ikast.	4 9 ikast.	5
6 12 ikast.	7	8 17 ikast.	9	10 16 ikast.	11 5 ikast.	12
13 10 ikast. 12 ikast.	14 19 ikast.	15 1 ikast. 17 ikast. 19 ikast.	16	17 14 ikast. 16 ikast.	18 14 ikast.	19
20 3 ikast. 12 ikast.	21 3 ikast. 19 ikast.	22 1 ikast. 3 ikast. 19 ikast.	23	24 7 ikast. 17 ikast.	25 7 ikast. 17 ikast.	26
27 12 ikast.	28	29	30			

## ABENDUA

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11 12 ikast. (martxoaren 19ra arte)	12	13	14	15 7 ikast.	16 7 ikast.	17